



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako kartela aukeratzeko lehiaketaren oinarriak.

2025eko apirilaren 30ean izandako batzarrean, Bermeoko Udaleko Osoko Bilkurak onartu du Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako kartel iragarlea aukeratzeko oinarriak:

Bermeon, 2025eko maiatzaren 6an. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly

**ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIETAKO KARTELA
AUKERATZEKO LEHIAKETAREN OINARRIAK****Xedea**

Bermeoko Udalak «Andra Mari eta Santa Eufemia Jaiak» iragarriko dituen kartela aukeratzea.

Gaia

Bermeoko jaiak. Kartela Bermeoko jaietako adierazle izan behar da.

Horretarako honako ezaugarri hauek hartuko dira kontuan: jai herrikoiak eta herritarrentzat izatea, parte-hartzaileak, sortzaileak, euskaldunak, feministak, solidarioak eta ekologistak.

Lanak aurkeztea

- Lehiaketan parte hartu dezake edozein pertsona fisikok.
- Kartelak derrigorrez, 50 cm x 70 cm neurtuko du. Formatu bertikalean.
- Gura den beste kolore eta edozein teknika erabili daiteke.
- Lanak bi eratan aurkezteko aukera dago:
 - PDF formatuan, bereizmen handikoa.
 - Euskarri gogorrean.
- Adimen artifiziala: egileak adimen artifizialeko (AA) sistemaren bat erabiltzen badu kartela egiteko, horren berri eman beharko du sarrera erregistroan.

Lanak aurkezteko lekua, modua eta epea*Bermeoko udalaren egoitza elektronikoan*

Honetarako eskatzaileak ziurtagiri elektronikoa izan behar du.

Eskatzaileak egoitza elektronikoan sarrera erregistroa egin behar du, hurrengo dokumentuak erantsita:

- IN-292 Jaietako kartel lehiaketarako izen-emate orria (udaleko inprimakiak atalean).
- IN-108 baimen idatzia betez gero, baimendu dezake beste pertsona batek bere izenean lana aurkezteko.
- Egileak guztiz borondatezkoa den idazki bat aurkeztu dezake, aurkeztutako lanaren azalpenarekin eta aukeratutako izenburua erabilita.
- Bereizmen handiko PDF formatuko kartela.

Berhaz bulegoan (Ertzila, 6-8)

Eskatzaileak sarrera erregistroa egin behar du, hurrengo dokumentuak erantsita:

- IN-292 Jaietako kartel lehiaketarako izen-emate orria.
- Egileak IN-108 baimen idatzia betez gero, baimendu dezake beste pertsona batek bere izenean lana aurkezteko.
- Egileak guztiz borondatezkoa den idazki bat aurkeztu dezake, aurkeztutako lanaren azalpenarekin eta aukeratutako izenburua erabilita.
- Eskatzaileak formatu fisikoan, kartela 50 cm x 70 cm. tamainarena, euskarri gogor bati lotuta aurkeztuko du.

Lanak aurkezteko epea: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean urtero argitaratuko den deialdian zehaztuko da.

Testua

Testu hau ipini beharko da:

- «Bermeoko jaiak» eta dagokion urtea.
- Irailaren 7tik 16ra.

**Epaimahaia**

Epaimahaia 9 kidez osatuta izango da:

- Udalean dauden alderdietako kide bana, artearen edota diseinu grafikoaren alor inguruko 2 pertsona, jai batzordeko 2 ordezkari, mugimendu feministako ordezkari 1 eta gazte 1.

Lehiaketan parte hartzetik kanpo geratzen dira epaimahaiko kideak eta aholkulariak, baita euren lehen mailako odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko senideak ere edo haiekin antzeko bizikidetzak afektiboko harremana duten pertsonak.

Epaimahaian emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango da, guztiek ere trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia dutela. Lau kide baino gehiago izango direnez, sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkaritza izango du.

Kartelak kanporatzeko irizpideak

Epaimahaiak baztertu egingo du gutxienez honakoren bat betetzen duen edozein proposamen:

- a) Kartelen egileen nortasuna erakustea (irabazlea nor den adierazi arte, parte-hartzaileek ezin izango dute jendaurrean adierazi, ezta sare sozialen bidez ere).
- b) Arrazakeria, sexismoa edo LGTBIfobia adierazpenak.
- c) Egilea identifikatzeko elementu grafikoak.
- d) Irudi iraingarriak edo diskriminatzaileak.
- e) Udalerraren irudiarentzat egokiak ez diren elementuak.

Edonola ere, epaimahaiak proposamenak baztertzeko arrazoiak eman beharko ditu, eta aktan sartu beharko dira.

Balorazio irizpideak

Epaimahaiak irizpide hauen arabera baloratuko ditu jasotako proposamenak:

Proposamenen estetika, Bermeoren izaera islatzea, baloreak kontuan izatea eta orijinaltasuna.

100 puntu banatuko dira lau atal hauetan:

- Estetika: armonia estetikoa baloratuko da; koloreak, testuaren letra eta marraztutakoa (25 puntura arte).
- Bermeoren izaera islatzea: Herriko jaiak direnez, jaiak kartelean argi islatzea puntuatuko da. Herriko leku esanguratsuak e.a... (25 puntura arte).
- Baloreak: feminismoa, kulturartekotasuna, jai partehartzaileak, LGTBi filia, ingurugiroaren errespetua eta orokorrean Bermeoko herritarren aniztasuna adierazten duten irudi edota mezuak be baloratuko dira. (25 puntura arte).
- Orijinaltasuna be kontuan izango da; beti ere kontuan hartuta aurretik kaleratutako kartelak ez errepikatzea... orijinaltasunak ez du zertan izan behar obra berri bat. Inspiraziotzat lagundu dezake eta honen bidez eratzen bada kartela, ontzat hartu daiteke. (25 puntura arte).

****Balorazioari dagokionez, gizakiek egindako kartelak hobetsiko dira adimen artifizialaz egindakoen gainetik 10 puntu kenduz puntuaketa orokorrari.**

Lan irabazlea aukeratzea

Epaimahaiak aurkeztutako kartel guztiak ikusiko ditu eta lan puntuazio gehien dutenen artean finalistak aukeratuko ditu.

Herritarrek epaimahaiak aukeratutako kartel finalisten artean bozkatu dezakete. Horrela ere, herritarren bozketan berdinketarik edo arazorik balego, lan irabazlea aukeratzea epaimahaiaren esku geratuko da.

*Kartel finalistak ikusgai*

- Bermeoko udalaren webgunean eta bere sare sozialetan.
 - Gizarte eta Kultura etxean (Irakaskintza, 14-16).
- Ordutegia: 09:00-14:00 / 17:00-21:15 (astelehenetik barikura).

Bozkatzeko epea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean urtero argitaratuko den deialdian zehaztuko da.

Bozkatzeko erak

- Gizarte eta Kultura etxean ipinitako ontzian.
 - Internet bidez.
- Oharra: pertsonako boto bakarra eman ahal izango da.

Bozketaren balioak

- Aurrez aurreko botoek %70eko balioa izango dute.
 - Internet bidez emandako botoek %30eko balioa izango dute.
- Boto gehien lortzen dituen kartela, irabazlea izango da.

Lan irabazlearen jakinarazpen epea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean urtero argitaratuko den deialdian zehaztuko da.

Lan irabazlea ebatziko duen organoa

Tokiko Gobernu Batzarra.

Izaera pertsonaleko datuak babestea

Lehiaketan parte hartuta, sariaren irabazleak onartzen du bere izen-abizenen barri ematea lehiaketaren ebazpena argitara emateko.

Datu pertsonalak eta aurkeztutako gainerako dokumentazioa lehiaketa hau kudeatzeko erabiliko dira, Datuak Babesteko 3/2018 Lege Organikoan (DBLO) eta Datuak Babesteko Europako Parlamentuaren 679/2016 Erregelamenduan (DEPE) oinarrituta.

- Arduraduna: Bermeoko Udala, udala@bermeo.eus
- Legitimazioa: interesdunaren baimena.
- Hartzaileak: ez zaie daturik emango hirugarrenei, ez bada legezko betebeharra dagoela.
- Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko eta tratamenduari aurka egiteko eskubideak.
- Informazio gehigarria: www.bermeo.eus/datuenbabesa.html

Saria

- Sari bakarra egongo da, 600 eurokoa.
- Sariaren zenbatekoari lege ezarritako atxikipen fiskala (%19koa) aplikatuko zaio.
 - Sari hau jasotzea bateragarria da beste sari batzuekin.
 - Sariari lotutako zenbateko ekonomikoa jasotzea, egile eskubideak eta jabetza intelektualeko eskubideak lagatzearen kontra-prestaziotzat hartuko da.
 - Bermeoko Udalarekin zorrak izatekotan, kitapena egingo da.

Beste baldintza batzuk

Bermeoko Udalak jaietako kartelean aldaketak egitea eskatu diezaioke kartelaren egileari.

Egile eskubideak: Egileak behar bezala kudeatuta eduki behar ditu kartelean agertzen diren argazki eta ilustrazio eta baliabide grafiko guztiak erabiltzeko eskubideak.



Beste obra baten irudirik erabili badu edo plagiorik egin badu, egilea izango da gerta litezkeen arazo erantzule bakarra, eta obra berehala erretiratuko da.

Udalak kartel irabazlearen jabetza ez eze, jendaurreko komunikaziorako, kopietarako eta banatzeko eskubideak ere eskuratuko ditu; eskubide horiek udalarenak baino ez dira izango.

Saritua izan ezik, gainerako egile guztiek lehiaketa honetan aurkeztutako lanen egiletzaren eta jabetza intelektualaren eskubideak gordeko dituzte.

Epaimahaiak erabakiko du oinarri hauetako edukiak interpretatzeko edozein zalantzari buruz, baita aurkeztutako lanen edukiari eta lehiaketarekin lotutako beste alderdi batzuei buruzko edozein gairi buruz ere.

Epaimahairen erabakia apelaezina izango da.

Lehiaketan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar.

Kartelak batzeko epea

Sarituak ez diren lanak batzeko epea irailaren 1ean bukatuko da. Epe hori igaro eta gero, jaso ez direnak suntsitu egingo dira.

Argibide gehiago

- Bermeoko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Saila.
- Gizarte eta Kultura etxea, Irakaskintza, 14 - 16.
- Tel.: 946179157.
- e-posta: kultura@bermeo.eus
- Webgunea: www.bermeo.eus